

HAURTZARO

Gasteizko Udal

Haur Eskolako

Hezkuntza Proiektua

2020

Aurkibide

1	Sarrera.....	3
2	Printzipio pedagogikoak eta metodologia.	4
2.1	Nola ulertzen dugu haurra?	4
2.2	Aniztasunarekiko arreta.....	4
2.3	Pertsona helduaren zeregina.....	5
2.4	Harremana eta parte-hartzea familiekin (komunitatea).	5
2.5	Hizkuntzen tratamendua.	5
2.6	Baterako hezkuntza eta gizonen erantzunkidetasuna hezkuntzan.	6
2.7	Ingurumen-iraunkortasuna.....	6
3	Hezkuntza-praktika.	6
3.1	Egokitzaldia (Harrerako eta eskola-bizitzara ohitzeko denbora).....	6
3.2	Eguneroko bizitza antolatzen duten ardatzak.	7
3.2.1	Sarrera/ Harrera - Irteera/Agurra.	7
3.2.2	Otorduak.....	7
3.2.3	Higienea.	8
3.2.4	Atsedena- Loa.	8
3.3	Jolaserako aukerak.....	9
3.4	Bestelako ekintzak.	10
3.5	Espazio eta material hezitzaileak.....	10
3.6	Ebaluazioa.	11

“HAURTZARO Gasteizko Udal Hur Eskolako Hezkuntza Proiektua”

1 Sarrera.

Hurtzaro Hur Eskola Gasteizko hirigune historikoan dago kokatua, bi solairuko eraikuntza batean.

1979an sortu zen, ordutik hainbat aldaketa izan ditu erabiltzaileen beharretara egokitzeko.

Eskolara hur hezkuntzako lehenengo zikloko umeak etortzen dira (0-3 urtekoak), lau taldetan banatuta: sehaska gela bat, urte bateko umeen bi gela eta bi urteko umeen gela bat.

Eskola 11 hezitzailek, zuzendariak, sukaldariak eta garbitzaileek osatzen dugu.

Jantoki zerbitzua dago, sukaldariak prestatutako menuekin. Janaria ekologikoa eta 0 km-ko elikagaiak eskaintzen ditugu.

Metodologia aldetik, helburua nagusia haurraren garapena bere osotasunean bermatzen da. Familien parte hartzea eta bere laguntza izatea ezinbestekoa da helburu hau lortzeko.

Horretaz gain, gure ardatzak dira jolas librea, hezkidetzeta, musikaren lanketa, psikomotrizitatea eta elikadura ohitura osasuntsuak.

2 Printzipio pedagogikoak eta metodologia.

Eskolara datozen haurren garapenaren dimentsio guztiak jolasarekin loturik daude. Haurrek ekintza, objektuak erabiltzea eta ingurukoekin harremanak izatea behar dute, eta hori jolastuz egiten dute. Jolasaren bitartez, haurrak bere ulertzeko moduak antolatzen ditu, bere gaitasunak probatzen ditu, bere esperientzia berregin eta ulergarriago egiten du, bere emozioak menderatzen saiatzen da eta bere burua ezagutzeko bidean aurrera egiten du. Horregatik, gure metodologia aktiboa, esanguratsua eta eraikitzailea da.

Horrez gain, hainbat teoria psikologiko eta pedagogikotik abiatzen gara.

Umeekiko atxikimendu emozionala ziurtatzeko John Bowlbyren teorian onarritzen gara. Eta haien garapenetan laguntzeko heziketa emozionalaren printzipioak jarraitzen ditugu.

Ume txikitxoek behar fisiko eta emozionalak asetzeko Emmi Piklerren teoriaren hainbat irizpide kontuan hartzen ditugu, batez ere "Mugimendu askatasunean"-ari dagokiona.

Umea osotasunean (bai kognitibo, motor eta emozionalean) haintzat hartuz Aucouturierren teorian oinarritutako psikomotritate praktika egiten dugu.

Hezkidetzaren berdintasun eta aniztasunaren ikuspuntutik lantzen dugu. Haur bakoitzaren garapen prozesua eta nortasuna errespetatzen ahalegintzen gara. Baita sozializazioaren prozesuan ere laguntzen diegu, besteekin harreman egokiak izan ditzaten. Halaber, "0 indarkeria 0 urtetik" printzipioari jarraitzen diegu.

Aldi berean, familiekiko elkarlana egiten dugu gurasotasun positiboaren irizpideak helaraziz.

Ahozko hizkuntza, plastikoa eta musikala garatzeko baliabideak ematen dizkiegu gai izateko arlo guztietako adierazpenetan. Horretarako elebitasunari dagozkion teoriak kontuan hartzen ditugu, Arno Stern-en trazoaren garapenaren azalpenak baita Gordon-en Musika Ikasketaren Teoria ere.

Oinarri pedagogiko hauek islatzen dira eguneroko lanean egiten ditugun ekintza guztietan, bai espazio bai materialen erabileran baita hezitzaileen jarreran ere.

2.1 Nola ulertzen dugu haurra?

Gure eskolan honela ikusten dugu haurra: izaki bakarra da, errepikaezina, etengabe garatzen ari da eta bere nortasunaren eraikitzailea da.

Izaki aktibotzat hartzen dugu haurra. Haurrak jakin-minaren, esperimentazioaren, behaketaren, harriduraren eta, azken finean, jolasaren bidez ezagutzen du bere ingurunea.

Bere parekoekin eta pertsona helduekin erlazionatzeko beharra du.

Bere osotasunean garatzeko inguru afektibo eta segurua behar du; horrela, helduaren erabateko mendekotasunetik autonomiarantz abiatuko da, arian-arian.

2.2 Aniztasunarekiko arreta.

Haurtzaron nahi dugu batetik ume bakoitza den bezalakoa onartu eta errespetatu; eta bestetik ahalik eta garapen pertsonal handiena lortzen lagundu, aniztasunari erantzuna emanda.

Hezitzaileok ulertzen dugu aniztasuna eguneroko gauza naturala dela. Hurrengo hauek definitu eta besteengandik bereizten gaituzte: gure gurasoen kulturak, ama hizkuntzak, familia eredu berriak eta seme-alabek hazteko eta hezteko joera berriak, babesgabetasun sozio-ekonomikoko egoeran dauden

familiak, generoak, interesak, gaitasunak, balizko aniztasun funtzionalak, alderdi afektiboak izaerak eta abarrak.

Horregatik, aniztasunari erantzuteko, eredu inklusiboa sustatzea derrigorrezkoa iruditzen zaigu. Helburua ez da bakarrik denentzako eskola bat egitea baizik eta denentzako beharrak asetzea eta denek antzeko aukerak izatea.

2.3 Pertsona helduaren zeregina.

Gure eskolan umearen ongizatea daukagu helburu eta horretarako gaitasunak garatzeko aukerak ematen dizkiogu. Horiek horrela, funtsezkoa da lotura afektiboa sortzea umearekin hasieratik. Lotura hori honela lortzen dugu: umeen beharretara egokituta, babesa eta segurtasuna ziurtatuta, bere garapen mailarekin errespetuz jokotuta, distantziak emanda baina begiradarekin lagunduta, banakako arreta zainduta, bere sentimenduei eta ekintzei hitzak jarrita, autonomia erraztuta, estrukturaturako testuingurua eraikita eta arauak zein mugak ongi definituak jarrita.

Halaber, umea laguntzen dugu, bere garapena bortxatu eta aurreratu gabe. Haurren interesak, espazio pertsonala eta banakotasunak errespetatzen ditugu, desberdintasunei eta berezitasunei erantzunez.

Hezitzaileok giro aproposa sortzen dugu, baliabideak umearen eskura jarrita eta espazioak egokituta.

Gure zereginetan familiak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu; horregatik, familiarekiko arreta eta harremanak zaintzen eta bultzatzen ditugu.

2.4 Harremana eta parte-hartzea familiekin (komunitatea).

Hartzaro eskola ingurune fisiko, natural, sozial eta kultural jakin batean dago eta inguru horretako pertsona guztiekin harremanetan sartzen gara. Zuzendariak, sukaldariak, atezaintzako edo garbiketako langileek eguneroko eta hurbileko harremana dute eskolako haur, hezitzaile eta familiekin.

Dena dela, gure lana familiekiko harremanetan oinarritzen da. Eskolaren eta familiaren arteko harremana sendotzeko memento asko izaten ditugu, batzuk formalagoak eta egituratuagoak eta beste batzuk informalagoak eta egunerokoak. Horien artean, nabarmenenak: umea eskolan hasten denean, harrera egiteko eta elkar ezagutzeko denbora; egunero, sarrera-irteeretako informazio-trukatzea; urtean zeharreko bilerak, elkarrizketak, lantegiak, eskolako jarduerak, guraso eskolak; Eskola Kontseiluan parte-hartzea.

Gure eskolako familiek parte hartzeko, zenbait ekintza antolatzen ditugu: agenda, urtebetetzeak, ipuin ibiltaria, ur-jolasak, lantegiak...

Ekintza horiek talde bakoitzaren adin-tartera egokitzen ditugu.

2.5 Hizkuntzen tratamendua.

Umeak gero eta goizago eta gero eta denbora gehiagoz eskolaratzen ditugu. Hori dela eta, 0-3 eskoletan hizkuntza garatzeko ardura familiekin batera banatu beharra dago.

Hartzaro eskolako hizkuntza euskara da nagusiki, baita harreman hizkuntza hezitzaileen artean ere.

Adituen arabera, gizakiaren komunikatzeko eta pentsatzeko gaitasuna hizkuntzaren bitartez garatzen da. Pertsonak hizkuntza batean baino gehiagotan hitz egiteko gaitasunarekin jaiotzen dira, baina gaitasun hori garatzeko, beharrezkoa da komunikazio-asmo bat izatea. Hizkuntza guztiak beste

pertsona batzuekiko harremanetan barneratzen dira. Horregatik, eskolan etengabe entzuteko jarreran oinarritutako konfiantzazko harremanak sortzen ditugu.

Haurtzaro haur eskolak komunikazio-eremua izan behar du, haurrentzat esanahietan aberatsa, argia eta ondo egituratua. Horretarako hezitzaileek prozesuan dugun eginbeharra planifikatzen eta oinarritzko irizpideak adosten ditugu.

Eskolak eta hezitzaileek hizkuntza bat erabili behar dute nagusiki, (hizkuntzak ikasteko eta bereizteko) baina etxeko hizkuntzak errespetatu eta baloratzen ditugu. Horregatik gonbidatzen ditugu haien hizkuntzak eskolara ekartzen eta gurekin partekatzen, haien eguneroko komunikazioetan eta proposamen kulturaletan (ipuinak, olerkiak, abestiak, jolasak...).

2.6 Baterako hezkuntza eta gizonen erantzunkidetasuna hezkuntzan.

Eskolan emakume eta gizonen arteko berdintasunean sinesten dugu baina gure gizartean ezberdintasuna transmititzen jarraitzen dela ikusten dugu. Horregatik Haurtzaro Eskolan hezkidetzarekin konpromiso irmoa hartu dugu.

Eskolan sexismoa eta generoen modelo itxi eta nahitaezkoak desagerrarazteko lanean ari gara. Horrela umeei askatasuna ematen diegu nahi dutena izateko.

Pertsonak errespetuz tratatzen baditugu, sexu, generoa eta gainerako ezaugarriak ez dira eragozpena izango, nork bere identitatea eraikitzeko.

Hezkidetzak aldaketa bilatzen du, estereotipoak apurtuz. Hau da, tradizioz femeninotzat jo diren aspektuei balioa ematea eta positibotzat hartzea (zaintza, artea, emozioa...); aniztasuna adieraztea posible egiten duen eredu anitz baten alde apustu egiten dugu.

2.7 Ingurumen-iraunkortasuna.

Haurtzaro haur eskolan jasangarritasunaren aldeko zenbait ekimen aurrera eramaten ditugu. Izan ere, ingurumenaren babesa guztion ardura dela pentsatzen dugu eta horregatik eskolan ere gure eguneroko bizitzan "Murriztu, birziklatu, berrerabili eta berrezkuratu"-ko printzipioari jarraitzen saiatzen ari gara eta horri lotutako ekintzak egiten ditugu.

3 Hezkuntza-praktika.

3.1 Egokitzaldia (Harrerako eta eskola-bizitzara ohitzeko denbora).

Egokitzaldia egiteko oinarri teoriko hauek kontuan hartzen ditugu: atxikimenduaren teoria (Bowlby), Aucouturierren teoria eta urte askotako esperientzia.

Une zabala da, zeinetan familiek, hezitzaileek eta haurrek behar duten konfidantza sortzen duten. Prozesu horren helburua ume eta hezitzaile erreferentearen arteko lotura estua sortzea da.

Garapen prozesua pertsonala da. Guztiok desberdinak garenez pertsona bakoitzak bere erara bizitzen du. Hala ere, haurren ongizatea bermatu behar da.

Tutoreek familiekin adostuta egokitzaldiaren egutegia antolatzen dute. Prozesu pertsonala denez, egutegi malguarekin lan egiten dugu; haurra eta familiaren egoera familiar eta emozionalera moldatzen gara.

Denboraldi honetan haurra bere konfidantza den pertsona batekin (aita, ama, aitona, amona...) etorriko da.

Gure eskolan egokitzaldia irailean zehar eramaten dugu aurrera. Urrian eskolako ordutegi osoarekin hasten gara. Hala ere, umeak kurtsoan zehar sartzen badira, harreraldia beraien beharretara egokitzen dugu.

Haurraren egokitze prozesuaren arabera denbora hau luza daiteke, horrela kasu batzuetan, hezitzaileok familiarekin adosten dugu denbora nola antolatu. Ez dago epe bat bukatzeko, izan ere, beti umeen jarrerak eta ezaugarriak kontuan izanda, aurrera eramaten dugu. Aldi berean, familien beharrak ere kontuan hartzen ditugu eta haiek eskatzen badute irailaren azken astean ordutegi normalean umea ekartzen has daitezke.

3.2 Eguneroko bizitza antolatzen duten ardatzak.

3.2.1 Sarrera/ Harrera - Irteera/Agurra.

Sarrera garrantzi handiko unea da bai familientzat bai haurrentzat. Egunero lehen unetan gertatzen dela kontuan izanik, egun guztian zehar eragina izango du. Ondorioz, ondo egindako harrerak, haurraren ongizateari lagunduko dio. Harrera egoki eta atsegina egitea ezinbestekoa izango da.

Familien eta hezitzaileen arteko komunikazioa sortzeko unea da.

Urtero familien beharra aztertu eta gero, bai erabiliko ditugun espazioak, bai zenbat hezitzaile beharko dugun antolatzen ditugu.

Harrera bitartean, gurasoak gelan sartu ahal dira eta beste txoko batzuetan (komuna) ere.

Agurra ere oso garrantzitsua da egunari amaiera egokia emateko eta hurrengo eguna eskolara gogoekin bueltatzeko.

Familiak informazio zuzena jasotzen dute bere umei buruz: emozionalki nola egon diren, zertan jolastu diren, zer jan, nola egin dute lo... eta zerbait behar duten.

- Eguerdiko agurra
 - 12:30-13:00
- Jantokiko agurra
 - 13:00-13:15 arte, bazkaltzera geratu direnak baina siestara ez, etxera joaten dira.
 - 15:15-16:00 arte, tarte horretan eskolan siesta egin dutenak joaten dira.

Sehaska gelan ordutegiak malguagoak dira eta familiekin adosten dira.

Salbuespenak kontuan hartzen ditugu (medikura joan behar direnean, egoera berezi baten aurrean...).

3.2.2 Otorduak.

Otorduak une garrantzitsuak dira gure eskolan, haurren oinarrizko beharrak asetzeko funtsezkoak baitira. Elikatzeko uneak ez ezik, harremanak sortzeko eta autonomia sustatzeko aproposak ere badira.

Haurrak asko dauka ikasteko bizitzako lehendabiziko hiru urteetan: edalontzitik edaten ikasi behar du, koilara erabiltzen, moztzen, ez zikintzen, mahaia ez narrasten, ikaskideei trabarik ez egiten, hainbat zaporeri gustua hartzen.... Aldaketa asko dira eta ezin dira egun batetik bestera ikasi.

Haurraren konfiantza dugu aurreko horiek ikasteko eta barneratzeko; horregatik haurren erritmoak, beharrak eta nahiak errespetatzen ditugu.

Txikitatik jatorduetako arauak ezagutzeari eta pixkanaka ulertzeari ere garrantzia ematen diogu. Jakin egin behar du jatordua ez dela jolas egiteko unea, ezin duela ahoa beteta duenean hitz egin, eserita jan behar duela, ezin duela besteen janaria ukitu... Haurrak arau horiek guztiak ezagutzea haren segurtasun sentimendua eta autonomia indartzeko baliagarria da.

Azken urteetan aldaketa egin dugu eskoletan eta elikadura jasangarri eta osasungarriko bidean jarri gara. Lehen bezala, janaria eskolako sukaldean prestatzen da baina irizpideak aldatzen ari dira. 0 km eligakiak eta osasuntsuagoak erabiltzen dira, esate baterako, proteina eta elikagai frijitu gutxiagorekin, baita elikagai berriak ere (artobeltza, artatxikia...). Normalean postrerik ez dago, bakarrik astean behin jaten dute jogurta. Fruta eguneroko hamaiketakoan jaten dute.

Alergiak kudeatzeko familiak emandako informazioa jasotzen dugu, baita medikuaren txostena ere, sukaldariak kontuan hartzeko.

Familiak elikadura osagarriarekin hasteko hainbat eratan egiten dute. Sortzen diren beharrei erantzuteko eskolak bi menu aukera ematen ditu, dena birrindua edo dena osorik.

Sehaskako umeek, izan ezik, beste umeek ezin dute elikagairik ekarri eskolara. Eskolan jaten dutena bi alditan banatzen da: hamaiketakoa eta bazkaria.

3.2.3 Higienea.

Umeak, gero eta txikiagoak izan, orduan eta garrantzi handiagoa ematen diegu eskaintzen dizkiegun higiene momentuei. Hezitzaile eta umearen arteko afektuzko momentuak direlako,

eta batez ere sehaskako umeen kasuan, etxetik kanpo lehenengo erreferentea izango garelako.

Eskolan higieneari lotutako une ugari daude. Guzietan umearen ongizate fisikoa eta afektiboa bermatu nahi dugu. Horregatik, ez dugu ahazten, alde batetik, banakako harreman esanguratsuak eta beste aldetik, umeen autonomia prozesurako balio handiko uneak direnik.

Harreman, arreta eta errespetua ezinbestekoak dira zaintzetan. Momentu horiek kalitatezkoak eta plazerean oinarrituak izan behar dira harreman iraunkorrek sortzeko.

Garrantzitsua da haur bakoitzarekin harreman afektiboa eraikitzea, lotura segurua, iraunkorra eta konfiantzazkoa.

3.2.4 Atsedena- Loa.

Gure eskolara etortzen diren umeen adinean loa funtsezkoa da osasunerako eta garapenerako. Loak erne sentitzea, memoria ona izatea eta hobeto jokatzeko sustatzen du. Behar adina lo egiten duten haurrak hobeto moldatzen dira bere ingurunean eta portaera eta suminkortasun arazoak izateko joera txikiagoa dute. Horregatik, garrantzitsua da nagusiek haurrei laguntzea lo egiteko ohitura onak garatzen adin goiztiarrean.

Haur bakoitza desberdina da eta bai lo- ohiturak bai lo-ordu kopurua aldatuz doaz garapena aurrera doan heinean. Hori ere kontuan hartu behar izaten dugu gure hezkuntza praktikan.

Atsedeen hartzeko edo lo egiteko unean faktore batzuk kontuan hartzen ditugu, besteak beste, etxeko ohiturak, zer ordutan etorri den umea eskolara, eta batez ere, familiak haurri buruzko emandako informazioa.

Bakoitzaren erritmoa errespetatzen saiatzen gara, baina, aldi berean, ahaztu gabe eskolako ordutegiaren menpe gaudela.

3.3 Jolaserako aukerak.

SARRERA

0 - 3 urte bitarteko etapan, jolasa garrantzitsuenetariko jarduera da. Izan ere, jolasak haurra bere burua garatzeko, adierazteko eta bizitza ulertzen hasteko ezinbestekoa da.

Jolasak esperientziak bizitzeko aukerak ematen dizkio haurrari, akatsak egitekoa eta arrakastak lortzekoa. Jolas librean autonomia esan nahi du, arriskuei aurre egitea, arazoak konpontzeko aukera izatea eta arazoak euren kabuz konpontzeak ematen duen satisfazioa esperimendatzea. Horrela, jolasaren ekintzen bidez, haurrak mundua gidatzen duten arauak deskubritzen ditu, bere bizitzaren eta bere ikaskuntza prozesuaren protagonista bihurtzen da.

Beraz, haurrak jolasaren bitartez arauak, autonomia, irudimena, esplorazioa... ikasten ditu. Jolasari esker, umeak bere bizipenak, sentimenduak, emozioak, kezak eta beldurrak islatzen ditu; horrez gain, ezagutza ugari barnerraten ditu.

Umea fisikoki eta emozionalki ziurtatzen dugunean has gaitezke proposamen eta erronka berriak aurkezten. Interesatzen zaizkienean inplikatuko dira.

Umeek behar duten giro lasaia eta segurua lortuz gero, umeak edonon jolasten dira

Familiak, hainbat ekintza aurrera eramateko, materiala ekartzen dute geletan erabiltzeko, baita lantegiak edo plastika saioak antolatzeke ere.

Horretaz gain, familiekin partekatzen ditugu zenbait proposamen (ur jolasak, musika saioak, antzerkiko lantegiak, besteak beste).

Eskolan material anitza eskaintzen diegu haien jolas librean erabiltzeko, gelan edo eskolako beste espazioetan dauden bitartean. Hauek dira eskolako espazioetan egin ohi ditugun proposamenak: plastika, psikomotrizitatea, jolas heuristikoa, zentzumenen lantegia...

Aretoa:

Jolas librean aritzen dira umeak guk proposatzen diegun materialarekin.

Patioa:

Patioan baliabide ugari erabiltzen ditugu, ez bakarrik bertako jostailuak: Naturak eskainitakoak, hostoak, makiltxoak, usoak eta inurriak behatzea, erratzak, palak kuboak, kotxeak, motorrak, pilotak, margoak, papera...

Psikogela:

Jolasa librearen bidez dispositibo sensoriomotorrean garatzen da; aldi berean, umeen eskura hainbat material jarriko dugu jolas sinbolikoa sortzeko.

Lantegia:

Umeei gorputz osoarekin esperimentatzeko proposamen estetiko zein heuristiko ezberdinak eskaintzen dizkiegu.

Musika saioak:

Ekintza nahiko zuzenduta dago, helburu zehatz batekin sortzen dugu eta. Helburua da musika bere osotasunean barneratzea. Saioetan zenbait abesti kantatzen dira eta abesti bakoitzak bere mugimendua eta bere materiala du.

Plastikagela:

Umeak hainbat materialarekin esperimentatzeko saioak antolatzen ditugu. Garrantzi handiagoa ematen diogu esplorazioari eta manipulazioari, produkzioari baino

3.4 Bestelako ekintzak.

Ikasturtean zehar eskolan gizarte eta kultura inguruarekin erlazionatuta dauden zenbait ekintza egiten dira. Talde bakoitzak parte hartzen du adinaren arabera.

Ekintza horietan familiek parte hartzen saiatzen gara, bai materiala ekarriz, bai zuzenean ekintzetan laguntza emanez.

- Urtebetetzeak.
- Antzezlanaren inguruko lantegiak.
- Umeentzako antzezlanak.
- Arte eta Lanbide Eskolako proposamen artistikoa.
- Ate irekiak.
- Jaiak: Olentzero, inauteriak, izozkiak, Prudentzio deuna...
- Folklore eskolako emanaldiak.

3.5 Espazio eta material hezitzaileak.

Eskola honetako ezaugarri garrantzitsu bat da bi solairutako eraikuntza dela eta horrek eragina du eremu guztien antolamenduan. Dena dela, 2018-2019 ikasturtetik igogailua daukagu eta erraztu egin da eguneroko lana.

Hauek dira eremuak erabiltzeko irizpide orokorrak:

- Espazioak antolatzerakoan, umeen autonomia eta jolas librea garatzeko aukerak ematea da helburu garrantzitsuena, betiere segurtasuna bermatzen bada.
- Garapena kontuan hartzen da eskolako guneak erabiltzeko.
- Altzariak eta geletako materiala txokoetan antolatzen ditugu. Umeen adinari eta beharrei egokituta daude, gero eta ume txiki gehiago ditugula kontuan hartuta.

- Gelan zein eskolako beste espazioetan ume bakoitzak bere tokia du: arropak, lotarako panpinak, pixoihalak gordetzeko...
- Espazioen estetika zaintzen ahalegintzen gara. Espazio abegitsuak, ondo zainduak, txukunak eta gertukoak sortzen ditugu. Argi naturalari lehentasuna ematen diogu.
- Urtero irizpideak bateratzen ditugu: dekorazioa, irudien erabilpena, txukuntasuna...

Dena dela, azken urte hauetan eremuak berritzen eta ume txikien adinera egokitzen ari gara.

MATERIAL HEZITZAILEAK

Eskolako materiala komuna da, hainbat gordelekutan gordeta dago eta hezitzaile bikote bakoitzak aukeratzen du noiz edo nola erabili.

Askotariko materialak eta objektuak aukeratzen ditugu: guztientzat aski izango direnak, erabilgarriak eta abar; hainbat egitura, kolore, tamaina eta formatutakoak; jatorri naturalekoak, iraunkorrak; erositako materialak, norberak egindakoak edo familiei eskatutakoak; haurrei beren gaitasun guztiak garatzeko aukera emango dietenak.

Materiala aurkezterakoan kontuan izaten ditugu hainbat irizpide: berdinen arteko jolasa bultzatzea, gatatzarrik ez sortzea, hezkidetzaren aldekoak izatea, etab. Adina ere, oso irizpide garrantzitsua da aurkezpen horretan, bai gelako egunerokotasunean bai gelaz kanpoko ekintzetan; besteak beste, tailerrak, psikomotrizitatea eta plastika.

Geletan erabiltzen diren materialez gain, beste material espezifikoago batzuk daude eskolan:

- Lantegirako materiala, taldeak proposamenen arabera prestatu eta erabil dezan.
- Jolas heuristikorakoa, saioetan edo geletan erabiltzeko.
- Aretoan erabiltzekoa.
- Patiora ateratzekoa.

Ikasgelako nahiz espazio komunitario altxariei dagokienez, funtzionalak izan daitezen eta kalitate estetikoak izan dezaten ahalegintzen gara.

3.6 Ebaluazioa.

Eskolan haurra bera ez dugu ebaluatzen.

Ebaluaketa hausnarketa garrantzitsua da gure hezkuntza praktikan. Baliagarria da haurraren garapena ezagutzeko eta behar izanez gero hori bultzatzeko; horrez gain, gure praktika aztertzeko eta hobekuntzak egiteko.

Zertarako ebaluatzen dugu?

- Umeen behar fisiko eta emozionalak asetzen ditugun aztertzeko.
- Gure praktika egokia den ala hobetu behar izango dugun jakiteko.
- Bai espazioetan bai materialetan hobekuntzak proposatzeko.



- Gurasoei umeei buruzko informazioa emateko eta modu egokian helarazteko.
- Umeek garapen egokirako laguntza behar izanez gero, beste profesionalen zerbitzuetara bideratzeko.

Zer ebaluatzen dugu?

- Haurren garapenaren hiru alderdi:
 - Umeen beharrak, bere emozioak, gaitasunak, banakako eta taldeko erantzuna eta egoera berriei egokitze prozesuak.
 - Haien arteko harremanak.
 - Gurekiko harremanak.
- Hezitzaileen zereginak:
 - Lan metodoa.
 - Jarrera.
 - Rola.
 - Koordinaketa.
- Ekintzak.
 - Materialak.
 - Espazioak.
 - Denborak.
 - Antolaketa eta prozedura.
- Komunitatearekiko harremana:
 - Familiekiko harremana.
 - Kanpotik etorritako agenteen ekarpenak (Gizarte langileak, Arreta Goiztiarreko Zerbitzua, pediatria zerbitzua...).
 - Formakuntza.
 - Eskolan egiten diren jarduera ez-arruntak, ezohikoak (Antzerki saioak, Folklore Eskola, Arte eta Lanbide Eskola...).

Nola ebaluatzen dugu?

- Ebaluazioa jarraia egiten eskolako ekintza eta egoera guztietan.
- Hausnarketa pertsonalaren eta behaketaren bidez.
- Informazioa biltzen (idatziz, argazkien edo bideoen bidez).



- Gurasoen iritziak eta proposamenak jasotzen.
- Beste eskoletako eta beste zerbitzuetatik bidalitako txostenak aintzat hartzen.
- Beste eskola batzuetako esperientzatik abiatuta, koordinazio eta lan taldeetan informazioaren eta iritzien hartu-emanak sortzen.
- HPko atal guztietan adostutako irizpideak jarraituz.